

1- IKUSI AURRETIK

1.1 Zein lanbidez ari dira?



Askotan itxuragatik badakigu pertsona batek zein lanbide duen. Bi lagun hauek horretan ari dira. Irakurri elkarrizketa eta ondoren esan zein lanbidez hitz egiten ari diren, beheko irudiak aukeratuta.

Elkarrizketa	Erantzun galderei
<ul style="list-style-type: none"> ● <i>Ikusi al duzu mutil hori? Bai, neska, txapel urdina daramana.</i> ☐ <i>Zer gertatzen zaio ba mutil horri? Ba, nire ustez postaria da. Begira nola daraman bere poltsa.</i> ● <i>Eta beste gizon hori? Horrek ziur egurrarekin lan egiten duela. Begira eskuan daukan kaxa.</i> ☐ <i>Bai, egia da, erreminten kaxa dauka.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> ● Zein lanbideri buruz ari dira? Markatu beheko irudietan. ● Nola dakizu lanbide horiei buruz ari direla? Idatzi behean pista eman dizuten hitzak. <p>.....</p> <p>.....</p>



Jarri binaka eta erantzun galderei. Ondoren, komentatu taldean zuen iritziak.

Zuk normalean pertsona baten lanbidea asmatzeko zeri begiratzen diozu?

.....

Zuk asko begiratzen diozu itxurari? Pertsona baten itxuragatik zer jakin dezakegu? (lanbidea, aberatsa den edo ez,...)

.....

.....

2- IKUSI BITARTEAN

2.1 Baietz asmatu!



Ikusiko duzun bideoan Josuk hau esaten dio Amaia. Begiratu bideoaren beheko irudiari eta lehen atala ikusi baino lehen erantzun beheko galderei.



AMAIA. - Josu, azken bolada honetan estu samar ikusten zaitut, zer duzu?



Nola ikusten duzu Josu?	Zergatik dago horrela?
Aspertuta dago.	Eguraldi txarra dagoelako
Oso urduri dago.	Beti presaka dabilelako
Nazka-nazka eginda dago.	Eskolako lanak pilatzen ari zaizkiolako

Orain ikusi bideoaren atal hori. Asmatu duzu erantzunetan?

2.2 Zein lanbide ote dute?

  Amaia eta Josu jendearen itxuragatik zein lanbide ote daukaten asmatu nahian ari dira. Ikusi bideoaren azken atala eta lotu komentario horiek dagozkien lanbidearekin. Ondoren seinalatu nork egin duen komentario hori.

KOMENTARIOAK	LANBIDEAK	NORK esan du?
Eskuetan daraman kutxan erremintak izango ditu	Arotza	AMAIK
Ez dute arkatza eramaten belarrarian	Mekanikoa	
Buzoa du	Perfumeriako saltzailea	JOSUK
Arropa hori da bere uniforme		
Takoi horiek....	Botiketako bisitaria	

Ariketa egin ondoren, ikusi berriro atal hori, baina azpтитuluekin, eta alderatu erantzunak binaka.

3- IKUSI ONDOREN

3.1 Hizkuntzari erreparatu



Erreparatu transkripzioaren zati honetan azpimarratutako egiturari, eta azpimarratu

elkarrizketako antzeko egiturak. Ondoren, binaka erantzun beheko galderari eta erantzunak alderatu.

JOSU.— Bueno... buzoa du eta eskuetan daraman kutxa erremintak izango ditu, seguru.

AMAIA.— Ez, ez. Nire ustez arotza da, mekanikoez ez dute arkatza eramaten belarran!

JOSU.— Egia da, kar-kar-kar! Eta beste emakume hori? Amaia sorgina, zure txanda!

AMAIA.— Zein, hori?

JOSU.— Ez, ez, ez. Eskuinera doan emakume gaztea.

AMAIA.— Brusa zuria, jertse urdina eta gona urdina... Ba... horrek perfumeria batean lan egiten du eta arropa da bere uniforme.

JOSU.— Bai zera! Emakume hori botiketara joaten den bisitari bat da, botikak

1. Zertarako erabiltzen dugu - (e)N egitura?

- Azalpen bat emateko
- Zerbait edo norbait identifikatzeko
- Komentario bat egiteko

2. Kasu hauetan, non erantsi behar da -(e)N erlatibozko atzizkia?

- Beti izenean
- Aditz laguntzailean edo trinkoan
- Kasu guztietan amaierako aditzari

Ariketa hau egiten duzunean begiratu hurrengo orrialdeko taula urdinean. Hortxe dauzkazu erantzunak:

Erlatibozko esaldiak: - (e)N

Zerbait edo norbait zehazteko eta identifikatzeko erabiltzen dugu.

Zerbait bereizgarria aipatzen dugu: kokapena, itxura...

Izena aipatzen dugunean, deklinabidea aditz laguntzaileari (dut, naiz, zait..) edo aditz trinkoari (nago, darama, doa..) erantsiko diogu

Ikus adibideak:

Eskuinera doAN emakumea gaztea da.

Eskuetan kutxa daramaN gizonak arotza ematen du.

Eskuinera doazEN emakumeak botikariak dira.

3.2 Nortaz ari zara?

   Bilboko jaietako argazki bateko jendea identifikatzeko esaldiak osatu binaka. Erreparatu irudiari eta erabili multzo bakoitzeko osagai bat.

Adibidez: *Begira, ikusten duzu Mari Jaiaren aurrean dago en emakume hori? Ba, hori gure irakasle berria da.*





Mutikoa
emakume hori
emakumea
neska koxkorra
emakumea

Panderoa jotzen ari da
Txapela du
Mari Jaiaren aurrean dago
Eskusoinua jotzen ari da
Ezkerraldean, eserita dago

mozkor galanta harrapatu zuen.
amarekin haserretu zen.
gure irakasle berria da.
hurrengo egunean gaisotu egin
zen.
bazkaria prestatu digu.

3.3 Euskaltegian: zein da zein?

  Euskaltegian aurten bi ikasle atzerritar hasi dira eta gelara argazki bat eraman duzu zure gelakoei erakusteko. Erabaki zein diren (eta jarri izenak). Horiek deskribatuz, binaka, elkarrizketa osatu behar duzu. Ondoren ahoskera zainduz, denen aurrean antzeztu. Ikus adibidea:



- **Aizu Ana, klaseak hasi al dira zuen euskaltegian?**
- **Bai. Herenegun hasi ginen. Gainera, aurten bi ikasle atzerritar hasi dira. Ikusten duzu alkandora urdina duen mutila? Ba, hori Giovanni da, italiarra.**
- **Aizu, eta zein da ezkerrean dagoen emakume ilehoria? Aurpegi ezaguna egiten zait.**
- **Bai, neska, hori Ane da. laz zure gelan ibili zen. Eta jertse urdina duen neska beltzarana Anuska da, errusiarra. Oso neska jatorra.**



Elkarrizketak entzun dituzuenak apuntatu zein den zen, eta adierazi. Ea asmatzen duzuen. Antzeko esaldiak erabil ditzakezue.

Nire ustez Giovanni irudiaren eskuinaldean dagoen mutila da. Eta Anuska, berriz, irudiaren erdian dagoen neska beltzarana.

Ariketa egin ondoren, ekarri gelara antzeko argazki bat eta bertakoak deskribatu gelakoei, ea asmatzen duzuen zein den zein.